

TENISA



Sanchez Vicariok partidu gogorra jokatu zuen Pat Cash-en kontra.

Emilio Sanchez Vicariok lau orduko partidua jokatu zuen

MELBOURNE

Edberg bi hilabete jokatu gabe egon ondoren iritsi zen Australiako Irekera, eta aurreneko partidua urduri hasi bazuen ere, azkar hartu du suediar txapelketaren erritmoa. Munduko aurreneko jokalaria oso erraz irabazi zion atzo Mezadri suitzarrari (6-1, 6-2 eta 6-1) eta titulua irabazteko aukeran iragartzen da.

Boris Becker alemaniarak (3), aldiz, uste baino arazo gehiago izan zituen Gianluca Pozzi italiarraren kontra, partidua hiru setetan erabaki arren (7-5, 7-5 eta 6-2). Estreinuana saka izan bazuen armarik onena (25 'ace'), Beckerrek lan handiagoa egin behar izan zuen atzo laugarren saiora sailkatzeko.

Emilio Sanchez Vicario ere final hamaseirenetara sailkatu zen, Cash australiarari irabaztean, ia lau ordu iraun zuen partidu gogor eta berdinduan (7-6, 6-2, 6-7, 3-6 eta 6-1).

Lendl txekoslovakiarrak (5) partidu erraza zuen atzo Roger Rasheed austriarraren kontra, eta inolako eragozpenik gabe irabazi zuen (6-3, 6-2 eta 6-3). John McEnroe eta Andrei Cherkasov zerrendaburuaren artean izan ez arren maila handiko tenislariak dira, eta estatubatuarrek jokatzeko duen bakoitzean interes handia biltzen du. Atzo lanak izan zituen,

Monica Seles prest agertu da Jimmy Connorsen aurka jokatzeko

MELBOURNE

Monica Seles jugoslaviarra, munduko aurreneko jokalaria emakumezkoetan, Jimmy Connors estatubatuarren kontra erakustaldi-partidua jokatzeko prest agertu da. 18 eta 40 urteko bi tenislarien arteko norgehiagokak ikusmin handia eragingo du, betidanik izan bait dira tirabirak gizonezko eta emakumezko tenislarien arteko aldea dela eta. Selesen esanetan, European sortu zen partidua hau jokatzeko asmoa, Grand Slameko zortzi txapelketa irabaziak dituen Connors, Selesen kontra par-

baina garaipena lortu zuen errusiarren kontra (7-5, 3-6, 6-4 eta 6-3).

Ezustekoen artean, Derrick Rostango (12) eta Karel Novacek (8) jokalarien porrotak aipatu beharra dago. Lars Wahlgreen suediarak hiru setetan kanporatu zuen Rostango (6-1, 7-5 eta 7-6) eta Wayne Ferreira afganistandarrak izugarriko partidua jokatu zuen Novacek txekoslovakiarraren kontra (3-6, 6-3, 7-6 eta 7-6). Bietako edonor izan zitekeen garailea, baina azken bi setak tiebreaken erabaki ziren Ferreiraren alde (8-6 eta 9-7).

Emakumezkoetan, Seles estu eta larri ibili zen bigarren setean Kimiko Date japoniarren kontra, baina une erabakiorrean ondo erantzun zuen txapelketako aurreneko zerrendaburuak (6-2 eta 7-5). Arantxa Sanchez Vicariok, aldiz, erakustaldi polita eman zuen Sandrine Testud frantziarraren kontra, bi setak nagusitasun osoz irabaziz (6-1 eta 6-1).

Australiako Irekian ari den beste espainiarra, Conchita Martinez. Arantxa bezain erraz nagusitu zen atzoko ihardunaldian, inolako eragozpenik sortu ez zion Stephanie Rehe estatubatuarren kontra (6-1 eta 6-2). Jana Novotna (6), Manuela Maleeva (9) eta Anke Huber (12) ere hurrengo saiorako sailkatu ziren. erraztasun handiz.

tidua jokatzeko ados zegoela argitaratzean hainbat aldizkarik.

«Partidu hori jokatzeko izugarriko gogoia dut» adierazi du Monica Selesek Melbournen, Australiako Irekian, «ikuskitzen bikaina izan daitekeelako, joko maila onarekin». Antzerako partidua 1973an jokatu zen aurrenekoz, eta Billie Jean King estatubatuarrek 6-4, 6-3 eta 6-3 irabazi zion Bobby Riggsi Houstonen.

Boris Beckerrek argi eta garbi azaldu du norgehiagoka honi buruz duen iritzia: «Ez zait interesatzen. Nahiago dut txapelketako partidua jokatzeko».

TXIRRINDULARITZA

Izagirre: «Iaztik zor diguten dirua da arazo honen gakoa»

Gogor kritikatu du Munduko Txapelketara profesionalik ez eramatea

Txutxi Izkarak ez du profesionalik eramango datorren otsailaren batean Britaina Handiko Leeds hirian jokatu den Munduko ziklokros txapelketara. Jose Ramon Izagirrek gogor kritikatu du selekzionatzailearen erabakia eta iaztik federazioak zor dien diruaren ondorioa dela gaineratuz.

RAMON BASALDUA / BILBO

Jose Ramon Izagirre, Iurrebaso. Sala, Mujika, Zarrabeitia, Etxabe eta gainerako profesionalak ezin izango dute parte hartu aurtengo munduko ziklokros txapelketan. Batzuentzat, urte guztian zehar asfaltu gainean ibiltzen direnentzat, erabaki horrek ez du garrantzi handirik, askok ez bait dute nahi lasterketa horretan parte hartu. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, ziklokrosa bakarrik korritzen duten txirrindulariekin.

Santiago Izkara entrenatzaileak Leedsra profesionalik ez eramateak haserrea sortu du txirrindularien artean. Hauxe da Espainiako txapelketa irabazi izan duen Jose Ramon Izagirrearen iritzia: «Zer esango dizut? Ez da erabaki zuzena, inondik eta inora. Ez dakit horrekin zer lortu nahi izango duen. Nire ustez iaztik zor diguten dirua da arazo guzti honen gakoa. Ez guk, ez afizionatuek eta ezta gaztetxoek ere, ez dute dirurik jaso. Izkarak esan omen duenez, profesionalak ez dute maila onik mundialetan parte hartzeko. Ez dut ulertzen nola esan dezakeen gauza hori, profesionalak izan bait gara urtero emaitza onenak lortu izan ditugunak».



Marino Lejarreta.



Izagirre ez du harritu selekzionatzaileak hartutako erabakiak.

✓ Txutxi Izkarak selekzionatzaile postuan segitzen duen bitartean, profesionalak mundialetik kanpora utziko dituela uste dut.

GARRANTZI HANDIKO LASTERKETA Izkarak hartu duen erabakiak lur jota utzi ditu ziklokrosen ari diren profesional batzuen ilusioak. «Kolpe handia izan da guretzat. Oso gogorra da urte guztian entrenatzen egotea eta indarrean egoteko ahalegin guztiak egin, azkenean etxean

geratzeko. Lasterketa honetan munduko txirrindularirik onenek parte hartzen dute eta beti egiten dizu ilusioa bertan parte hartzeak».

Erabaki honek ondorioak izan ditzake etorkizunean, goi mailako profesionalak ez bait dira egun batetik bestera sortzen. «Nire ustez Izkarak selekzionatzaile postuan segitzen duen bitartean profesionalak ez dute mundialetan parte hartuko. Selektionatzaile berri bat izendatu arte egoera berdinean segituko dugu. Honelako erabakiren bat espero genuen, urtero esaten bait zuen bata edo bestea etxean geratuko zala. Azkenean erabakia hartu du», esan zion Izagirrek EGUNKARIARI.

Lejarreta-Mauri ONCE taldeko bikotea Sei Orduetarako

DONOSTIA

Marino Lejarretak eta Melchor Maurik osaturiko bikotea aurkeztuko du ONCE taldeak otsailaren zortzian jokatu den Euskadiko Sei Orduetarako. Anoetako belodromoan beteko duten zaletuek inork baino gehiago txalotuko dute Berrizeko txirrindularia, gure artean erakarpen handia duen txirrindularia bait da. Kontutan edukitzea behar da, gainera, Marino Sei Orduetan ikusteko azken aukera dela aurtengoa. ONCEko txirrindulari veteranoak jadanik azaldu du hau izango dela bere azken denboraldia.

Marinok Melchor Mauri hautatu du aurtengo ediziorako. Lehengo urtetan Urs Freuler espezialistarekin osatu zuen bikotea, baina emaitzak

ez ziren espero bezalakoak izan. Freuler ez zen sasoirik onenean etorri, eta Marino ez zen bikotea lehen postuetara eramateko gai izan.

Mauri pistan bikain aritzen den txirrindularia dugu. Espainiako Itzuliko Txapelduna erlojupeko txirrindulari bikaina da, eta pistan ere bikain moldatzen da. Euskadiko Sei Orduetan izango den maila kontutan izanik ezin esan daiteke garaipenerako kontutan hartzeko bikotea denik, baina bai ordea zaletuen txalo mordo jastzeko modukoa.

ONCE taldekoa antolatzaileek ofizialki iragarri duten hirugarrena da. Aurretik Bugno-Figno De Wilde-Veggerbi bikoteen izena kaleratu zuten antolatzaileek. Oraindik ofiziala ez baldin bada ere Cabestany-Olano bikotea ere Donostiako belodromoan egon daiteke.